

SUGARREN MENDE

“Supliziara doazelarik, beraiek akusaturiko infinizio bat jende inguratzen zaie saiatzera deklarazioa aldarazten, haren burua errugabetzeko; eta zintzilikatzekotan dauzkagularik, gaintetik ikusten zituzten aita, ama, izeba, senarra, emaztea, ahizpa, anaia, semea, alaba, iloba eta beste infinizio bat senide gehiago, zeintzuek gonbidatzen baitzieten, malkoa begian, gibelerara egin zezaten, familia guztia libratzekotan desohoreaz eta heriotzaz”

Pierre de Lancre, 1612.

Saiakera Grafikoa

1525etik 1616ra bitarte sorgin-ehiza andana burutu zuten Nafarroa guztian, Erronkaritik Sakanaraino.

Eta Logroñoeko prozesua baino urte bat lehenago, Lapurdi guztira ere hedatu zen jazarpena.

Guk orduko herritarren tragedia kontatuko dugu bere enkoadramendu historikoan, bai eta testuinguru geografikoan ere, ezin baita ahantzi Euskal Herria bera mugalde bilakatzen ari zela bi inperio absolutisten artean.

Zigorturiko euskaldunak ez ziren bazterkinak, baina garaiko lider sozialak: horretarako eraiki zen sorginen sekta kolektiboaren mitoa, buruzagi haiek bidetik kentzeko, ezohiko prozedurak baliatuz.

Albuma

Zortzi kapitulutan banaturik. Kapitulu bakoitza autokonklusiboa da, baina denen artean Sugarren Mende bakar bat osatzen dute.

Bederatzigarrenean, pertsonaia historikoen galeria ezarri dugu, eta zigortuen omenezko memorial osatugabea.

1580 ZUGARRAMURDI

Neguko arratsalde hotza.

Herriko Batzarrea Etxeberri aitzinean.

Sagarrondo landatugabearen inguruan herrikide andana.

1591 IRUÑEA

Udaberriko goiz argitsua.

Mirandako kondea bisorraia, Leon Aranibar Urdazubiko abadeburua, Bernardo de Rojas y

Sandoval apezpikua

Zitadela eraikitzen ari.

1591 BASTIDA

Udazkeneko arratsalde ezitia.

Katherina printzesa Estatu Nagusien buru, eliza aitzinean.

Nafarroa Beherea, Erreformaren, judutarren eta moriskoen aterbe.

1609 AINHOA

*Udako goizaldea.
Handikien bilkura sekretua:maskaraturik,
Aranibar, Valle eta Prado inkisidoreak, Uhalde, Espaignet, Senpereko eta Urtubiko Jaunak.*

1609 SENPERE

*Udazkeneko arrats apala.
Lancre eta Gaxenen arteko elkarrizketa.
Gazteluko ziegetan pausa bat torturaldian.*

1610 LOGROÑO

*Udako arratsaldea.
Graziana Logroñoeko ziegan.
Emazte presoaren gogoeta kordokatuak, oroitzapen lausoak.*

Mendearen kronika: sarraskiak Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan, Luzaiden, Baztanen, Bortzirietan, Malerrekan, Ultzaman, Oلابarren, Ezkabarten, Anuen, Odietan, Araitzen, Arakilen, Leitzaldean, Sakanan, Burundan, Amezkoan ...

1610 LOGROÑO

*Udazken haizetsuko arratsaldea. Autodafea.
Hitzik gabeko kapitulua.*

1616 URDAZUBI

*Neguko goiz lanbrotsua.
Urdazubiko abadetxean Aranibar zaharra.
Herritarrendako audientzia.
26 biktima abadian agertu,
erreparazio eske.*

GALERIA

Galeria bakar bat ez aski irudikatzeko sugarren mendean sufritu zuten euskaldun guztiak
Honatx memorial osatu gabea
Irainduak bahituak auzipetuak torturatuak zigortuak deserriratuak presondegiratuak bortxatuak
urkatuak erreak lintxatuak iheslari galereetara kondenatuak ebatsiak isilaraziak umiliatuak
ahantziak

karguez eta lanbidez gabetuak jende librean zuzenez peituak armagabetuak infamia oinordetza.

Ezaugarri Teknikoak:

120 orri

Argitaratze-data: 2020ko udazkena

Argitaletxeak: Erroa + Herrima koedizioan

Egilea: Asisko Urmeneta – Iruñea 1965

Nazioartean saritua

Kuban (Palma Real, Habana 1991.),

Korsikan (Prix Méditerranée, Ajaccio 2003. Elkargoaren Domina 2009.),
Australian eta Frantzia (Publikoaren Lehen Sariak, Auburn eta Bordele 2013.),

haren albumak eta animazio-filmeengatik,
bakarka zein kolektiboan eginak.

2017an Euskal Herriko Lehenengo Sormen-Saria irabazi du,

« Artista plastiko modura duen kalitateagatik, Euskararekin duen engaiamenduagatik eta kultur eragile modura egindako lanagatik ».

2019an beste sari nazional bi eskuratu ditu:

-Urteko Nafarra, “Euskal Herriaren konzientzia historikoaren eta ondare materiala nahiz ez-materialaren berreskurapenaren arloan egindako lanagatik, bereziki Nafarroako Erresumaren errealitate historikoari dagokionez.”

-Euskadi Saria, “Komikiaren lengoaiaren mugekin jolasten duen proposamen arriskutsua izateagatik. Gai historiko eta dibulgazio-lan baten barruan estilo komiko-umoristikoa erabiltzeak proposamen ausarta egiten du. Horren ondorioz, obra, bere osotasunean hartuta, liburu objektutzat hartzen da, non komikiak eta umoreak komunikazio- eta ikus-hizkuntza gisa duten balioa nabarmentzen den.”